

Zaindu zeure harremanak

Elkarrekin komunikatzeko gero eta aukera eta bitarteko gehiago ditugu eskura; horretaz ez dago zalantzarik. Baina ondo komunikatzen al gara? Gai horren inguruan arituko gara sekuentzia honetan.

Bertan ariketa hauek egin ditzakezu:

- Entzun audioa eta laburpenik onena aukeratu.
- Esaldiak osatu, zatiak lotuz.
- Lehengo eta oraingo komunikatzeko moduak konparatu taldeka.



1. Laburpenik egokiena

Audio honetan, pertsonen arteko komunikazioari buruz hitz egingo du Hajar Samadik.

Entzun audioa eta aukeratu mezua ondoen jasotzen duen laburpena.

- Gaur egun lehen baino gehiago eta hobeto komunikatzen gara teknologiari esker.
- Gaur egun asko baloratzen ditugu harreman pertsonalak; horregatik ibiltzen gara etengabe mezuak jasotzen eta bidaltzen.
- Gaur egun nahiz eta elkarrekin komunikatzeko aukera gehiago eduki, ez dugu aprobetxatzen harremanak sakontzeko.



<https://labur.eus/D17Su>



2. Samadiren esaldiak osatzen

Hemen dituzu Hajar Samadik esandako esaldi batzuk, baina zatituta daude. Lotuko al dituzu esaldi osoak osatzeko?

1. zatia

- 1- Aitona-amonekin harremanetan jartzeko, grabazioak bidaltzen genizkien...
- 2- Orain audio bat bidali eta beste aldean dagoenak ez ditu entzuten...
- 3- Whatsapp gehiegi ditugu ikusteko, e-mail gehiegi erantzuteko;...
- 4-Gure arteko harremanak berreskuratu behar ditugu;...

2. zatia

- () denborarik edo interesik ez dagoelako.
- () eta horrela hilabeteak pasatzen dira besteekin komunikazio zuzenik izan gabe.
- () erlazioak loreak bezalakoak dira: zaindu egin behar dira.
- () nazioarteko telefono-deiak garestiak ziren-eta.

3. Aurrez aurre gutxiago

Hajar Samadik esaten du aldatzen ari dela pertsonen arteko komunikazioa. Zuk ere horrela pentsatzen al duzu? Talde txikitik jarrita, komentatu lehen nola komunikatzen zineten eta orain nola komunikatzen zareten. Lehen ala orain hobeto?

	Nola komunikatzen zinen/zara?	Lehen ala orain komunikatzen zara gehiago?
Lagunekin, kuadrillakoekin...		
Gurasoekin, anai-arrebekin...		
Gutxitan ikusten ditugunekin: ikaskideak, familiartekoak (osaba-izebak, lehengusuak...)		
Kanpoan egon edo bizi direnekin		

Komunikatzeko moduak: aurrez aurre, telefono finkoz, telefono mugikorrez, whatsapp bidez, bideo-deiez, eskutitzen bidez...

- Lehen kanpoan zeuden familiakoekin eskutitzen bidez komunikatzen ginen; orain, telefonoz.
- Kuadrillakoekin aurrez aurre beti. Baina orain baita Whatsappez ere.
- Orain gehiago komunikatzen gara; baina lehen gehiagotan egoten ginen aurrez aurre elkarrekin.

ERANTZUNAK

1. Laburpenik egokiena

- ✓ Gaur egun nahiz eta elkarrekin komunikatzeko aukera gehiago eduki, ez dugu aprobetxatzen harremanak sakontzeko.

2. Samadiren esaldiak osatzen

1. zatia

- 1- Aitona-amonekin harremanetan jartzeko, grabazioak bidaltzen genizkien...
- 2- Orain audio bat bidali eta beste aldean dagoenak ez ditu entzuten...
- 3- Whatsapp gehiegi ditugu ikusteko, e-mail gehiegi erantzuteko;...
- 4-Gure arteko harremanak berreskuratu behar ditugu;...

2. zatia

- (2) denborarik edo interesik ez dagoelako.
- (3) eta horrela hilabeteak pasatzen dira besteekin komunikazio zuzenik izan gabe.
- (4) erlazioak loreak bezalakoak dira: zaindu egin behar dira.
- (1) nazioarteko telefono-deiak garestiak ziren-eta.



TRANSKRIPZIOA

HAJAR SAMADI. Zer gertatu da gaur egun harreman pertsonalekin? Gure artean komunikatzen al gara? Edo beste modu batera esanda: ondo komunikatzen al gara? Lehen gizakiok komunikazio-mota desberdinak erabiltzen genituen besteekin harremanetan jartzeko, besteen berri izateko.

Ni txikia nintzenean, nire aitona-amonekin harremanetan jartzeko, grabazioak egiten genituen kasete-zintetan, gure ahotsa grabatzeko, eta Marokora postan bidaltzen genituen, telefono-dei internazionalak oso garestiak ziren-eta. Telefonoa izatea ere ez zen gauza orokorra, baina ahalegin handi honen ondoren, eta hilabete bat itxaron ondoren, amamak gure ahotsa lasai entzuteko aukera zeukan, gaur egungo whatsapp-audioak bezala.

Baina gaur egun, nahiz eta komunikazio-bideak oso anitzak izan, besteekin komunikatzea zaila da. Esate baterako, eskuko telefonoak poltsikoetan sartuta dauzkagu, guztien eskuetan daude, deiak merkeak dira, wifi-konexioa edozein gunetan... Baina eskuko telefonoak eta teknologia berriak ematen dizkiguten aukerak ez ditugu komunikatzeko erabiltzen. Orain audio bat erabil dezakegu eta beste aldean dagoenak momentuan entzun dezake postara joan barik, baina, hala ere, ez dira entzuten, denbora ez dagoelako edo interesa ere ez dago.

Presaka gabilta: ez daukagu denbora harremanetan sakontzeko. Whatsapp gehiegi ditugu ikusteko, e-mail gehiegi ditugu erantzuteko, sare sozial guztietan besteen bizitzaren berriak argitaratuta ikusten ditugu. Eta horrela orduak, egunak, asteak eta hilabeteak pasatzen dira besteekin komunikazio zuzena izan gabe.

Gure arteko harremanak berreskuratu behar ditugu. Baina batez ere berotasuna. Erlazioak loreak bezala dira: zaindu egin behar dira eta ureztatu egin behar dira. Usain onak gure bizitza lurrin dezala.